

2006-ko Bazko mezua

BAZKOK BULTZATU KRISTAUAK

" Kanporat emana arrazoinik gabe " ; formula lotsagabe horrek eskandala sortu du. Jendea asalatu da alde batera edo bestera. Etorkizun lanotsua duen gazteriaren bihotza deiadar batek bezala jo du. Descartes filosofoaren Frantziak beti lanak izanen ditu konprenitzen nolaz norbait kanporat eman daiteken, zergatik den jakin gabe. Giza eskubideak aldarrikatu dituen herriak bidegabekeria ez dezake onar, nahiz bere historian gaindi, neurria maite izanagatik ere, beti lanak izan dituen oreka edo ekilibrio baten kausitzen kontserbatismoaren eta iraultzaren artean.

* * * *

Gure gizartea inarrosi duten aurtengo gertakariak laguntzen gaituzte ezohiko molde batean Aste sainduan sartzen, eta bidezko arrazoinik gabe Jesusi, Bazkoko Jainko-gizonari, jasanarazi diozkagun molde basak gogoan erabiltzen.

Jesusen baitan, alabainan, ikusten dugu norbait galbidean zoon gizadiaren jainko-maitasunak bultzatua, eta salbatzerat etorria zen gizadi horrek berak kanporat botatua. Traba bat bezala zaukalakotz, bazter-nahasle eta blasfematzaile bat zela erran du; ez zuen haren torturatzeko eta hiltzeko arrazoinik, eta haren auzia justizia-karikatura bat baizik ez zen izan.

Beraz, bere kanporatze eta karikaturak zuzen kausitzera prest dagon mundu berean bizi gira beti. Geroaren prestatzeko eta hitzaren libratzeko aitzakiarekin, ahulenak kordokatze eta hobengabeak bortxatzeko dugun ahal beldurgarria agertzen du Kristoren Pasideak.

Bizkitartean, bere desberdintasun , makurtze eta biolentziekin bizi den **gure gizartea** ez da bere sukar, eta zuzenkontra-guneetan gelditzen: **baditu bere aberastasunak, bere irrika izpiritualak** askotan gaizki erabiliak, eta jainko-gutiziatik desbideratuak ; ainitz presuna eta taldeeri fida daiteke, oraidanik , ixiltasunean etorkizun goxoago baten prestatzen ari baitira sozial obra eta elkartasun asmo bultzatzaileen bidez.

Bestalde, nagusi eta kargudun ainitzek beren kargua zintzoki betetzen dute, eta zenbaitek beren osagarria irriskuan emaiteraino. **Elizak**, bere aldetik, bere zailtasuneri buru egiten diote, udaberria prestatzen du, eta zinodo-ildoan bere eginahal apalak zabaltzen, gazteen bihotzean **Ebanjelioaren ereiteko** ; gisa guzietako girixtino ainitz badira, eginkizun horrek bultzatuak.

* * *

Aurten gure diosesan **san Frantses Xabierekoaren bost ehungarren urtemuga** ospatzen dugu : saindu nafartar euskaldun horrek lokarriak bazituen hemengo bi herrirekin, Jatsu eta Sukuskune. Hogoia ta bi urtetan konbertitu-eta, Kristo

hil eta piztuaren sendimenduak bere baitan bizitzera lehiatu zen, traba guziengatik; mugagabeko Asian lau hegaletara Ebanjelioa erein zuen; Gurutzearen zamak maiz haren urratsa moteldu balinbadu, Kristoren alderako amodio kartsuak bide berriak ideki ziozkan, herrialde eta kultura ezezagunetan. Erran daiteke " Izpirituaren haizeak bultzatua" zabilala.

* * *

Bi mila eta seigarreneko Bazko ! Bultzada erabakiorraren besta : Kristo Jaunak, Jainko Semeak, bere onginahian , Izpiritu Sainduaren haizeak bultzaturik, herioaren indarrak desafiatzen ditu gure libratzeko eta Aitarenganat gidatzeko.

Diosesako kristauak bultzada hori goza dezatela !

- Bai, diosesako kristau maiteak, indar guziez jarraik zaiteztela Bazkoko Kristoren bultzadari !
- Eman zaitezte la Bazkoko orenean otoitz eginez, Liburu Sainduak irakurtuz, zuen bekatuak aitortuz, sakramenduak hartuz, karitatea obratuz.

Mila bost ehun eta berrogeita hamabian, bere azken piararako, Txinarat abian zelarik, Frantses Xabierekoak Portugaleko erregeari izkiriitzen zion: " *Jainko gure Jaunak ezagutzen du haren baitan ezartzea nabi izan duen esperantza handia... Jainkoaren urrikalmenduan konfiantza dugularik abiatzen gira.* " (109.gutuna §5)

- **Izpiritu Sainduak bultzatuak Kristoren maitatzera eta hari jarraikitza**ra, horra Bazkoko orenean bizitzeko gure moldea.
- **Kristok betikotz kontratatuak, horra** gure zoriona.

Zer igurikatzen du gureganik Kristo hil eta piztuak? Hau bakarrik : izan gaiten kristau haren jarraikitzaile, dizipulu zintzo, haren lekuko suhar, Izpirituak bultzatuak.

+ Pierre MOLÈRES